



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Mendigatxaren <ss> grafemaren
azterketa: ezkutuko hautua**

Leyre Rojo Horrillo

19-25 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.02>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Mendigatxaren <ss> grafemaren azterketa: ezkutuko hautua

Leyre Rojo Horrillo

UPV/EHU

leyre.rojo@ehu.eus

Laburpena

Mariano Mendigatxak Azkueri bidalitako 36 gutunek Euskal Filologiaren arloan interesa piztu dute, baina argitaratu diren edizio modernoek kallesak¹ euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeke zerabilen <ss> digrafoa desagerrarazi dute. Guk, egitasmo honetan, estrategia grafiko horren erabileran sakontzea erabaki dugu, eta, horri esker, erakutsiko dugu <ss> ez zela Mendigatxaren hautu beregaina izan. Lan honek, halaber, agerian utziko du jatorrizko testuari zor zaion begirune leiala. Azterketa oztopatu dituzten erronkak ere adierazi dira, euskararen corpus historikoaren izaerari zor zaizkionak.

Hitz gakoak: Mendigatxaren gutuneria; <ss> digrafoa; analisi filologikoa; erronkaria.

Abstract

The 36 letters sent by Mariano Mendigatxa to Azkue have aroused interest in the field of Basque philology, but modern editions have erased the <ss> digraph that Mendigatxa used to represent the prepalatal in Basque. In this project, we have decided to delve deeper into the use of that grapheme, and, thanks to this, we will demonstrate that <ss> was not an isolated graphic choice of Mendigatxa. This work also defends the loyal edition of the original text. We have also pointed out the challenges that have made the analysis difficult and which are due to the nature of the historical corpus of the Basque language.

Keywords: Mendigatxa's correspondence; digraph <ss>; philological analysis; Roncalese.

1. Sarrera eta motibazioa

Mariano Mendigatxaren gutuneria erronkarierazko lekukotasun ezagunenetako bat da, eta ospe horren adierazgarri ditugu egin diren edizioak: Irigoien (1957), Estornés Lasa (1984), eta Pérez eta Angosen (2020) lanak. Erronkaria, gainera, egun bizirik ez dirauen euskal hizkeretako bat da, Erronkaribarreko euskalkia baikenuen, Nafarroako ekialdean kokatuta, Zuberoa, Biarno eta Aragoi mugakide zituena (cf. Rojo, 2023). Hori dela eta, Mendigatxaren eskutitzak hildako hizkera baten lekukotasuna ere bada, altxor linguistikoa.

Gutuneria Mendigatxak Azkueri idatzitako 36 eskutitzek osatzen dute². Erronkariarrak Erronkaribarretik bidalitako lehendabiziko gutuna 1902ko ekainaren 6koa da eta, 14 urte igaro eta gero, Azkuek azken eskutitza jaso zuen 1916ko abuztuaren 30ean. Gutun trukeak ez zuen maiztasun aldizkakorik izan, 1905etik lau urte igaro baitziren Mendigatxa Azkuerekin berriro harremanetan jarri zen arte, eta hartutako denborak kallesaren osasun-egoerarekin izan lezake zerikusia, Mendigatxak ordurako 70 urte baitzituen. Horregatik, lehenengo gutunetik Azkueri aitortu zion “agian berarengandik espero zena emateko ez zela gai izango” (Pérez, 2018: 412): «conociera yo si le será útil para satisfacer los deseos del fin que se ha prometido» (1902/06/06). Pérezek eta Angosek (2020: 197), halaber, testuetako idazketan atzeman dute adinak Mendigatxarengan eragindako narriadura: “bere idazkera izugarri okertu da bere azken gutun honetan aurreko guztiekin alderatuta, ezin baitu ongi jarraitu lerroak eta hizkia irregularragoa izanda ere, Mendigatxaren gainbehera fisikoaren erakusle”.

¹ *kalles*: “Erronkariarrei ingurukoek ematen dieten izena” (Euskaltzaindiaren hiztegia).

² Louis-Lucien Bonaparte printzeak hasitako erronkarieraren ikerketari jarraipena eman nahi izan zion Azkuek eta, horregatik, Mendigatxarekin harremanetan jarri zen. Adiskidetasun horren lekuko egitasmo honetara dakargun gutuneria da, eta Azkuek eskutitzen bidez bildutako informazioari esker, hizkerari buruzko bi lan linguistiko argitaratu ahal izan zituen: *Diccionario vasco-español-francés* (1984 [1905-1906]) eta *Particularidades del dialecto roncalés* (1931).

Dena dela, ordurako adineko gizona bazen ere, Mendigatxaren idazkeran atzeman dugu euskaraz ondo idazteko ardura hartu zuela, eta jarrera horrek berebiziko garrantzia du. Hau da, euskarak sistema grafiko estandarizatua falta zuen garaian, idazleek gaztelaniaren grafia-sistema egokitu behar zuten euskaraz idazteko, eta euskarazko txistukariak adieraztea erronkarik zailena zen, euskal idazleek ez baitzuten erdarazko eredu grafikorik hori irudikatzeko. Gutunerian, hala ere, euskarazko fonemak idatziz ondo islatzeko kezka nabaritu dugu, eta horren adibide argia da <ss> digrafoa, euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeko Mendigatxak darabilena. Euskaraz ondo idazteaz ere arduratu ziren garaiko autoreek ez dute <ss>-ren adibiderik eta, horren ondorioz, pentsa dezakegu Mendigatxaren estrategia berezia izan zitekeela. Horrek, halaber, erakutsiko luke 70 urteko hiztunak hizkuntzaren gaineko ezagutza maila altua zuela.

Mendigatxaren eskutitzen gaineko edizio-lanetan, aldiz, <ss> grafema <x>-z transkribatu da eta aldaketa horri esker, ikusi dugu lan filologikoez ez dutela beti azterketa fidagarria bermatzen, kasu honetan editoreen aldaketek Mendigatxaren igurzkariaren idazketa desitxuratzea ekarri baitute, eta horrek hizkeraren analisia kaltetzen baitu, aldaketek interpretazio okerrak ekarri baititzaizkete hizkuntzaren azterketan. Hori dela eta, <ss> azterketak ere euskararen ikerketan ohiko den oztopo bat agerian uzten du: hizkuntzalariak askotan eskuizkribuetara jo behar izaten du corpusari leial zaizkion edizioak falta direnean, jatorrizko testua gaizki editatzeak ikerketaren sinesgarritasuna kolokan jar dezakeelako.

Hortaz, egitasmo honetan erakutsiko dugu <ss> lagun diezagukeela garaiko euskal idazleen grafia estrategietan gehiago sakontzeko eta, era berean, Mendigatxaren hiztun profila xehatzeko. Halaber, <ss> grafemaren azterketak ikusaraziko du aldaketa moderno batek ezkutuan utzi duela erronkariaren idazkeraz gehiago jakiteko ezinbesteko izan daitekeen ezaugarri bat.

2. Arloko egoera eta helburuak

Azpimarratu bezala, Mendigatxaren garaian euskarak ez zuen sistema grafiko bateraturik eta, hori dela eta, garaiko Hegoaldeko euskal idazleek gaztelaniazko grafemak egokitu behar zituzten euskaraz idazteko.

Nolanahi ere, euskarari nortasun grafikoa emateko kezka XVIII. mendean pizten hasia zen (Urgell, 2018: 607) eta, horregatik, garaiko zenbait idazlek proposatu zituzten euskararako aldaketa batzuk: Larramendik <tz> eta <ts> afrikatuen erabilera zabaldu zuen eta horrek euskal grafia-sistema eraldatu zuen, txistukari frikarien eta afrikatuen arteko bereizketa ekarri baitzuen (Lakarra, 1985: 243). Kardaberatzek, halaber, <v> ez erabiltzeko proposatu zuen eta Añibarrok, bestalde, Zabalaren laguntzaz, <qu>-ren ordez <k> sartzea gomendatu zuen (cf. Urgell, 2018).

Aldaketa gehiago dira garai hartako autoreek proposatutakoak, baina, esan dugunez, konturik eztabaidagarriena gaztelaniazko grafia-sistema erabiliz euskarazko txistukariak adieraztea izan zen. Horregatik, alderdi honetan dugu aniztasun grafiko handiena, baina igurzkari sabaiaurrekoa izan zen desadostasun gehien sortu zuena: egun darabilgun <x> grafemak gaztelaniazko sistema grafikoan [x] fonema irudika zezakeen eta, horren ondorioz, euskal idazleak ohartu ziren euskarazko [ʃ] fonema adierazteko grafema bereizgarria baten beharra zela. Horren aurrean, Larramendik <is> eta <(i)sy> proposatu zituen (Urgell, 2001: 144). Añibarrok eta Zabalak, berriz, <sh>-ren aldeko ideia zabaldu zuten (Urgell, 1987: 365). Lardizabalek, adibidez, <(i)sh> erabili zuen, baina baita <ś> ere (cf. Urgell, 1995). Kardaberatzek, aitzitik, <ʃ> eta <ʃs> zerabiltzan, eta <ś> ere bai. Agirre Asteasuok, aldiz, diakritikoa <s> ondorengoko bokalari eransten zion, eta Mendiburuk <is> eta <iss> erabiltzen zituen; Frai Bartolomek, bestalde, <is> eta <ix> grafemen alde egin zuen (Urgell, 2018: 609).

Nolanahi ere, horietako inork ez zuen <ss> proposatu euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa adierazteko, eta Mendigatxak, gainera, grafema horren erabilera sistematikoa erakusten du. Horren ondorioz, Mendigatxaren <ss>-ren erabilera sakontzea erabaki dugu, hautu horren jatorria zehaztea baitugu xede nagusi, erronkariarraren estrategia berezia izan ote zen ala beste iturriren batek eragin ote zuen jakin nahi dugulako. Horrenbestez, Erronkaribarreraino iritsi zitezkeen literatura-oihartzun posible guztiak arakatzea dugu helburu:

- 1) Mendigatxak harremana izan zuen eta, beraz, berarengan eragina izan zezaketen idazleen idazketa-ereduak aztertu.
 - a. Bonaparteren laguntzaile izateagatik, printzearen gainerako laguntzaileek igurzkaria nola idatzi zuten zehaztu.
 - b. Mendigatxaren garai bereko kallesek igurzkari sabaiaurrekoa nola idatzi zuten ikertu.
 - c. Azkuek Mendigatxaren hizkuntzan izan zezakeen eragina behatu.
 - d. Mendigatxaren irakurketa ohikoena zen *Gaceta del Norte* egunkariaren euskarazko zutabeetako idazketa ereduaren arreta jarri.
- 2) Bonapartek <ss> idazketan eragina izan ote zuen ikusi.
- 3) <ss> hautu grafikoaren antzinatasuna ikertu, Mendigatxak euskarazko igurzkari sabaiaurrekoa irudikatzeak aurretik <ss> hautuak lekukotasunak dituen aztertuz.

Ikerketa honek, beraz, <ss> grafemaren erabilera eta kronologia zehaztea ditu helburu nagusi, baina lan honek ere filologiaren oinarriak aldarrikatu nahi ditu:

- 1) Jatorrizko testuari zor zaion begirunea defendatu: “*errespetu, leialtasun, dagoen dagoenean* edo kideko hitzen bat agertzea ezin utzizkoa da ia” (Urgell, 2013: 539).
- 2) Jatorrizko testuari egin zaizkion aldaketak zehaztearen garrantzia ikusarazi: irizpide sistematiko eta koherenteak nahitaezkoak dira.
- 3) Autorearen idazketa-moldea ezkutuan uzteak hizkuntzaren azterketan ekar ditzakeen interpretazio okerrak erakustea.

Horrez gain, <ss> grafemaren azterketa egitean izan ditugun oztopoak ere erakutsi nahi ditugu. Horiek euskararen ikerketetan maiz topatzen diren erronkak dira, euskal corpus historikoaren izaerari lotuak, hain zuzen ere.

3. Ikerketaren muina

Ikerketa honek Mendigatxak Azkueri bidalitako gutunetan euskarazko [ʃ] fonema adierazteko zerabilen <ss> hautu grafikoan jarri du arreta. Horren ondorioz, <ss> kallesaren estrategia bereizgarria izan ez zela frogatzeko, garaiko beste autoreen idazketa-ereduak ere aztertu ditugu (ikus 3.1) eta, horrez gain, grafemaren erabilera historikoan sakontzen ahalegindu gara (ikus 3.2).

Horrela, analisi honek erakutsi du edizio modernoetako <x> aldaketak galarazi duela Mendigatxaren benetako idazketa-estiloa, eta guk Mendigatxaren eskuizkribuetara jo izan ez bagenu, ezkutuan geldituko zen ezaugarri grafikoa izango litzateke.

3.1. <ss> grafemaren erabilera: azterketa konparatiboa

Lehenik eta behin, Mendigatxa erronkariar idazle eta Bonaparteren laguntzaile izan zela jakinik, harreman-sare bereko idazleek igurzkari sabaiaurrekoa nola idatzi zuten ikusi dugu. Horretarako, autore bakoitzeko lan bana aztertu dugu eta, horrela, idazle bakoitzaren hautu grafikoa zein izan zen zehaztu ahal izan dugu. Hori egiteko, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Artxibategietan gordetzen diren eskuizkribuetara jo dugu. Jarraian, aztertutako lekukotasunen erreferentziak adieraziko ditugu; artxibategietako corpus digitaletan daude eskuragarri:

1. taula. Aztertutako Bonaparteren laguntzaileen testuak.

Bonaparteren laguntzailea	Testua	Artxibategia	Igurzkari sabaiaurrekoa
Joakin Lizarraga ³	<i>Catecismo</i>	Nafarroako Artxibategia	<chs>
Pedro Jose Minondo	<i>Catecismo en dialecto de Garralda</i>	Nafarroako Artxibategia	<ss>
Pedro Jose Samper	<i>Catecismo en dialecto de Jaurrieta</i>	Nafarroako Artxibategia	<ss>
Jose Antonio Uriarte	<i>San Juan Apostolubaren Apokalipsis edo Aguertueria</i>	Bizkaiko Artxibategia	<ss>
Jose Ignacio Arana	<i>San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua: euskaraz eta gaztelaniaz</i>	Gipuzkoako Artxibategia	<sh>, <s>
Claudio Otaegi	<i>Doctrina cristiana Villafrancaco escuera eta Eguren jaunen metodon laugarren parte Cegamaco escueran</i>	Gipuzkoako Artxibategia	<s>, <ss>
Bruno Etxenike	<i>El Apocalipsis de San Juan en dialecto baztanés</i>	Nafarroako Artxibategia	<ch>
Iribarnegaray	<i>Yan Donaanniin Apokalipsa</i>	Bizkaiko Artxibategia	<ch>
Jean Pierre Duvoisin	<i>El Apocalipsis en dialecto labortano</i>	Nafarroako Artxibategia	<ch>
Jean-Baptiste Arxu	<i>Libro del Génesis en dialecto suletino</i>	Nafarroako Artxibategia	<ch>
D'Ibarrolle Salaberri	<i>L'Evangile selon Saint Mathieu, sur la version de M. Le Maistre de Sacy, traduit en langue basque, dialecte bas-navarrais</i>	Gipuzkoako Artxibategia	<ch>
L'Abbe Cazenave	<i>El Evangelio según San Mateo</i>	Nafarroako Artxibategia	<ch>
Jean Baptiste Dasconagerre	<i>Atheka gaitzeko oihartzunak</i>	Gipuzkoako Artxibategia	<ch>
Emmanuel Intxauspe	<i>Catecismo en dialecto suletino de Barcus</i>	Nafarroako Artxibategia	<ch>

2. taula. Aztertutako garai bereko kallesen testuak.

Erronkariar idazlea	Testua	Artxibategia	Igurzkari sabaiaurrekoa
Ezezagun	<i>Catecismo en dialecto de Urzainqui</i>	Nafarroako Artxibategia	<j>, <s>
Ezezagun	<i>Oraciones en el dialecto de Vidángoz</i>	Nafarroako Artxibategia	<s>
Ezezagun	<i>Catecismo en dialecto del Roncal</i>	Nafarroako Artxibategia	<ss>, <s>
Ezezagun	<i>Recopilación de diversas oraciones</i>	Nafarroako Artxibategia	<ss>, <s>
Prudencio Hualde Mayo	<i>El Evangelio según San Mateo en dialecto de Vidángoz</i>	Nafarroako Artxibategia	<ss>
Prudencio Hualde Mayo	<i>Catecismo en dialecto de Vidángoz</i>	Nafarroako Artxibategia	<ss>

Bestalde, Azkuek Mendigatxaren idazketan eragina izan zezakeen aztertzeke, Kaltzakortak (2023) argitaratutako Azkuek eta bere amak elkarri idatzitako eskutitzak aintzat hartu ditugu, horiek Azkue Mendigatxarekin harremanetan izan zen bitartean idatzi zirelako. Horietan ikusi dugu Azkuek <s>

³ Lizarraga ez zen Bonaparteren zuzeneko kolaboratzaile izan, 1835ean hil baitzen. “Halere, laguntza handikoa izan zuen haren lana, Printzeak haren eskuizkribuak erabili baitzituen eta hegoaldeko goi-nafarrera, Egueseko bailarako euskara batez ere, ezagutzeko eta aztertzeke aukera hobeagorik ezin zukeen izan” (Pagola, d.g.).

erabili zuela, eta ohartu gara horren adibiderik ere badugula Mendigatzaren eskutitzetan. Horrela, ondoriozta dugu kallesak <ś> Azkuerengandik ikas zezakeela, eskutitz zehatz batzuetan bakarrik hori baliatzen baitu.

Horrez gain, Mendigatzak gutunetan ohartarazi zuen bere irakurketa ohikoena *Gaceta del Norte* zela eta, horregatik, iturri horretan <ss> idazketa ikasi ote zuen jakiteko, Mendigatzak egunkaria aipatzen duenean, hurbileko lagin batzuk ikertu ditugu, egunkaria ia egunero argitaratzen baitzen, eta ez baitakigu esku artean zuen alea noizkoa zen. Hori dela eta, hiru aste, bi aste eta astebete lehenago kaleratutakoak, eta egun batzuk lehenago irakurri zitzakeenak ikertu ditugu:

3. taula. *Gaceta del Norte* egunkaritik ikertutako aleak.

Mendigatzak gutunerian egunkaria noiz aipatu	Arakatutako aleak	Artxibategia	Igurzkari sabaiaurrekoa
2. gutuna (1903/03/15)	1903/11/10, 1903/11/13, 1903/11/24 ⁴	Sancho el Sabio Fundazioa	<i>Ez da euskarazko testurik</i>
30. gutuna (1911/12/22)	1911/12/01, 1911/12/15, 1911/12/18, 1911/12/21	Bizkaiko Artxibategia	<x>
31. gutuna (1912/04/14)	1912/04/02, 1912/04/07, 1912/04/09, 1912/04/13	Bizkaiko Artxibategia	<x>
33. gutuna (1915/02/12)	1915/01/22, 1915/01/27, 1915/02/04, 1915/02/10, 1915/11/23, 1915/11/27 1915/11/30	Bizkaiko Artxibategia	<i>Ez da euskarazko testurik</i>

Azkenik, <ss> digrafoaren erabilerak Bonaparteren egitasmoekin lotura izan zezakeelako hipotesian sakontzeko, Bonaparteren eskakizunak aztertu ditugu. Printzeak laguntzaileei itzulpenetarako irizpide zehatzak ezartzen zizkien eta, horren ondorioz, pentsa dezakegu <ss> hautua printzeak sor zezakeen irizpideetako bat izan zela. Horregatik, laguntzaileekin izandako eztabaidak arakatu ditugu, baina horietan ez da <ss>-ren aipamenik aurkitu. Hala ere, testigantza gutxi heldu zaizkigunez, Campionen gramatika (1884) ere kontuan hartu dugu, printzearen jarraitzaile leial izan zenez, bere lanak printzearen eragina jasoko duelakoan gaudelako. Horri esker, erakutsi dugu Campioneek ere <ss> hautua ezaguna zuela.

3.2. <ss> hautu grafikoaren antzinatasuna

Alde batetik, frogatu dugu <ss> euskarazko igurzkaria irudikatzeko estrategia zaharra izan zitekeela eta, beraz, kallesaren garaia baino lehenago ere erabilia izan zela. Horretarako, kallesaren eragin literarioetatik aldenduaz, XVIII. mende hasierako Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras* (1735) lekukotasuna ikergai izango dugu eta <ss>-ren erabilera lekukotu dugu. Horrez gain, oraindik Mendigatza eta Azkue harremanetan jarri aurretiko 1802ko Añibarroren nafarreraz idatzitako *Cristau Dotriña* (1802) lana kontuan hartu dugu, eta testu honetan ere <ss> erabili zuen.

Bestetik, Bonaparteren harreman-sareetatik at zeuden bi egileren joera ere ikertu dugu, horiek printzeak Euskal Herria ezagutu zuenerako hilda baitzeuden. Horrela, ikusi dugu Mogelek <ss>, <šš> eta <s> grafemak erabili zituela, eta Astarloak, aldiz, <x> idazketa sistematikoa zuela⁶.

⁴ Mendigatzak *Gaceta del Norte* 2. gutunean aipatzen du lehenik, baina kasu horretan, ez dugu data horretara hurbiltzen den alerik aurkitu; hurbilen gelditzen direnak azaroan kaleratutakoak dira.

⁶ Aztertutako lekukotasunen erreferentziak: Mogelen analisirako *Cristau eracasle euscalduna* eta *Confesino ona* (Bizkaiko eta Gipuzkoako Artxibategietan), eta *Peru Abarka* liburu famatuaren 1899ko edizio inprimatua. Astarloaren kasuan, *Apología de la lengua bascongada* (1803) argitalpena kontuan hartu dugu.

3.3. <ss> azterketaren oztopoak eta galderak

Analisi honek agerian utzi du euskararen ikerketan ohikoa den ezintasun bat: lekukotasunen gabeziaren ondorioz, ezin izan dugu <ss> grafemaren erabileraren jatorria guztiz argitu. Mendigatxak <ss> Hegoaldeko hainbat iturritatik ezagun zezakeen eta, beraz, ez dugu horiek guztiak lotzen dituen azalpen bakarra lortu. Horretarako, ezinbestekoa litzateke Bonapartek Hegoaldean egin zituen bilerei eta ezarritako irizpideei buruz gehiago jakitea. Era berean, pentsa genezake Hualde Mayo garai eta herri berekoa izanik, Mendigatxak bere testuetatik <ss> ikasi zuela, <ś> Azkuerengandik ikasi zuen bezalaxe, baina posible ere bada Hualde Mayok testuak zuzenean Bonaparteri bidali izana. Horregatik, oraindik hipotesi ugari izan daitezke posible.

Horrez gain, ezin izan dugu jakin Mendigatxak zer irakurri zezakeen euskaraz. *Gaceta del Norte* egunkaria bakarrik aipatu zuen, baina euskarazko zutabeetan <x> erabili izanak iradoki digu ez zuela idazketa horrek Mendigatxarengan eragina izan.

4. Ondorioak

Edizio modernoetako <x> aldaketak Mendigatxaren <ss> hautu grafikoa ezkutuan utzi du, baina geuk ezaugarri grafiko hori ikusarazi nahi izan dugu eta horren erabileran sakontzean, ondorio hauek atera ahal izan ditugu:

- 1) Bonaparteren laguntzaileen testuak aztertzean, ohartu gara Iparraldeko eta Hegoaldeko kolaboratzaileen ohitura grafikoak ez zirela berberak izan. Iparraldean, frantsesaren sistema ortografikoan oinarrituta, <ch> zerabilten euskarazko igurzkaria adierazteko. Hegoaldean, berriz, aniztasun grafiko handiagoa lekukotu dugu eta, horren aurrean, ondorioztatu dugu gaztelaniazko ortografian igurzkaria irudikatzeko eredurik ez izateari zor zaiola; hots, Hegoaldeko idazleek ez zuten gaztelaniatik har zezaketen grafemarik euskarazko fonema ordezka zezakeena.
- 2) Erakutsi dugu <ss> grafema ez zela Mendigatxaren hautu isolatua izan, Hegoaldeko Bonaparteren zenbait laguntzailek ere <ss> baliatu baitzuten igurzkaria irudikatzeko. Hain zuzen ere, sistematikoki erabili zuten Uriartek, Minondok, Samperek eta Hualde Mayo.
- 3) Argi ikusi dugu Bonaparte ezin zitekeela izan estrategia horren sortzailea, Elizalde eta Mogelek ere <ss> erabili baitzuten. Ez hori bakarrik, Añibarrok igurzkarirako <sh> proposatu bazuen ere, 1802ko nafarrerazko dotrian <ss> du. Horri esker, alderaketa honek <ss>-ren antzinatasuna iradoki du.
- 4) Erronkierazko egileen igurzkaria aztertzean, azpimarratu dugu berritzaile bakarra Mendigatxa izan zela. Azkueri esker, <ss> ez ezik, gutunetan <ś> ere erabiltzen hasi zen, eta horrek pentsarazten digu gainerako erronkariar autoreek <ss> hautua bakarrik ezagutzen zutela.

5. Etorkizunerako proposatzen den norabidea

Lekukotasun berri gehiagorik ezean, Mendigatxak <ss> Hegoaldeko hainbat iturritatik ikas zezakeela ondorioztatu dugu. Hala ere, aipatu dugu *Gaceta del Norte* kallesaren irakurketa ohikoena izan arren, horrek ez zuela Mendigatxarengan eragina izan. Dena dela, egunkariak bere ikerketa propioa behar luke eta horrek ikerketa-lerro berri bat irekitzeko aukera eman lezake, non garaiko komunikabideek idazleengan izan zitzaketen eragina azter daitekeen eta, beraz, ezezagunak ditugun hainbat testutako egiletza aztertu beharra dagoen.

Horrez gain, etorkizunerako utziko dugu edizio modernoetan ikusitako aldaketen azalpen sakona, eta Mendigatxaren hizkeraren azterketan eragina izan dutenak. Lan hori tesiaren beste zati baten emaitza izango da.

6. Erreferentziak

- Añibarro, P. (1802): *Cristau-dotriña ceñetan eracusten baitire gure Fede Sanduco gauzaric bearrenac / aita Astetec erderaz, eta orai Nafarroaco euscaran izarrac adirazten duena erantsiric, ateratcen du Fr. Pedro Antonio Añibarro*, Josef Rada-ren Echea, Iruñea.
- Astarloa, P. P. (1803): *Apología de la Lengua Bascongada o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen*, Gerónimo Ortega, Bilbo.
- Azkue, R. M. (1931): Particularidades del dialecto roncalés, *Euskera*, 12, 207-406.
- Azkue, R. M. (1984 [1905-1906]): *Diccionario vasco-español-francés*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Campion, A. (1884): *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskera*, Eusebio López, Tolosa.
- Elizalde, F. (1735): *Apezendaco dotrina christiana uscaras : apepec, eta leitcen daquitenec eracusteco, eta explicatceco uscaldun puro leitcen estaquitenei, aiec aitus, eta memorias icasteco*, Alfonso Burguete Alargunaren Echea, Iruñea.
- Euskaltzaindiaren hiztegia:
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegia&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&non=sarrera&BuruaStrict [Kontsulta: 2025/01/22].
- Estornés Lasa, J. (1984): Mendigatxak Azkueri kartak, 1902-1916. Eta Erronkariko Uskaratik utzulpen ta goarpenak, *FLV*, 43, 55-127.
- Irigoin, A. (1957): Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkuel, *Euskera*, 2, 119-169.
- Kaltzakorta, J. (2023): Azkueren gutundegia: 1904-1906. urteetan atzeritik ama-arrebei idatzitako gutunak, *Euskera*, 68-1, 31-110.
- Lakarra, J. A. (1985): Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737), *ASJU*, 19-1, 235-281.
- Mogel, J. A. (1899): *Peru Abarka: Basarte-ko ikastetse andiko euskal-irakaslea edo Euskaldun baserritar bakarti baten eta maisu Juan izeneko bizargin kaletar baten arteko autuak*, Euskalzale, Bilbo.
- Pagola, R. M. (d.g.) (arg.). Bonaparte ondareko eskuizkribuak.
http://bonaparte.deusto.es/bonaparte/includes/paginas.php?id_menu=1&id=32&id_idioma=es.
- Pérez, G. (2018): Mariano Mendigatxa Ornat eta Erronkaribarko uskara, *Euskera*, 2, 393-417.
- Pérez, G. & Angos, A. (2020): *Mariano Mendigatxa & R. M^a Azkue. Correspondencia / eskutitzak 1902-1916*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Rojo, L. (2023): Erronkarieraren ikerketa-egoera gainbegiratuz, *Sancho el Sabio*, 46, 104-128.
- Urgell, B. (1987): Esku-liburuaren grafi aldatetak (1802-1821), *ASJU*, 21-2, 357-388.
- Urgell, B. (1995): *Francisco Ignacio Lardizabal. Testamentu Zarreko Kondaira I*, Kriseilu, Bilbo.
- Urgell, B. (2001): Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian, *ASJU*, 35-1, 107-183.
- Urgell, B. (2013): Euskal Filologia. Zer (ez) dakigu 25 urte beranduago?, in R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, UPV/EHU, Bilbo, 533-570.
- Urgell, B. (2018): Lehen Euskara Modernoa, in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 543-657.

7. Eskerrak eta oharrak

Egitasmo hau Eusko Jaurlaritzak emandako Doktoratu Aurreko Programako (2023-2024) laguntzari esker egin den doktorego tesiaren zati baten emaitza da, eta *Monumenta Linguae Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca* (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren eta *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia* (IT1534-2) ikerketa-taldearen barnean egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiet nire tesi-zuzendari biei, Joseba A. Lakarrari eta Eneko Zuloagari, emandako laguntzagatik. Nire esker ona adierazi nahi diot Enekorri testu honetan egindako oharrengatik.